

# Geografia

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK



**UNIBERTSITATERA  
SARTZEKO PROBAK**

**UPV/EHU**

**2016**



***Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.***

***Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.***

Probaren balorazio orokorra 10 puntukoa izango da:

**1. Ariketa praktikoa:** 4 puntu.

Mapak ondo egitea eta aurkeztutako materiala ulertzea eta era egokian interpretatzea hartuko dira kontuan.

**2. Gai bat garatzea:** 4 puntu.

Ezagutza-maila eta erlazioak egiteko gaitasuna hartuko dira kontuan.

**3. Kontzeptu geografiko batzuk definitzea:** 2 puntu.

Kontzeptu bakoitza definitzeko, gehienez 5 lerro erabil daitezke. Definizio bakoitza 0 eta 0,5 puntu bitartean kalifikatuko da.

Kontzeptuak argi eta zehatz definitzea hartuko da kontuan.

***Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.***

***No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.***

La valoración total de la prueba será de 10 puntos:

**1. Prueba práctica:** 4 puntos.

Se valorará la correcta elaboración de los mapas, y la comprensión y correcta interpretación del material presentado.

**2. Desarrollo de un tema:** 4 puntos.

Se valorará el nivel de conocimientos y la capacidad para establecer relaciones.

**3. Definición de conceptos geográficos:** 2 puntos.

Cada concepto debe ser definido en una extensión que no sobrepase las 5 líneas. Cada definición se valorará de 0 a 0,5 puntos.

Se valorará la claridad y precisión de las definiciones.



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK

2016ko UZTAILA

**GEOGRAFIA**


**A AUKERA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JULIO 2016

**GEOGRAFÍA**

1. Europar Batasuna osatzen duten estatuen kokapena. (4 puntu)




2. Euskal Autonomia Erkidegoko klima mota nagusien eta eremu klimatiko bakoitzari dagokion landaretza motaren sintesia. (4 puntu)

3. Kontzeptu hauen definizioa (bakoitzeko 5 lerro, gehienez):

- Autonomia-erkidegoa (0,5 puntu)
- Biztanleria aktiboa (0,5 puntu)
- Deslokalizazio industrialak (0,5 puntu)
- Garapen jasangarria (0,5 puntu)



1. Espainiako nekazaritza-paisaien maparen iruzkina. (4 puntu)



Iturria: Muñoz-Delgado, 2009

2. Biztanleriaren banaketa eta lurralde-desorekak Euskal Autonomia Erkidegoan. (4 puntu)

3. Kontzeptu hauen definizioa (bakoitzeko 5 lerro, gehienez):

- Landaredi potentziala (0,5 puntu)
- Migrazio-saldoa (0,5 puntu)
- Erliebe karstikoa (0,5 puntu)
- Desertifikazioa (0,5 puntu)



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

### GEOGRAFIA

Azterketaren balorazioa egiteko, kontuan hartuko da ea galdera praktikoan, galdera teorikoan eta kontzeptuen definizioan zuzen erantzuten zaion galdetzen denari.

#### Irizpide orokorrak

Bereziki kontuan hartuko da:

- kontzeptuen argitasuna
- idazkeraren zuzentasuna eta heldutasuna
- erlazionatzeko gaitasuna
- elementu eta faktoreak sailkatzeko gaitasuna
- erantzun ordenatua egituratzea
- mapa/lauki/taula edo grafikoen iruzkina erlazionatzea eta kartografiako kokapen zuzenak egitea.
- ezagupen-maila

#### Irizpide espezifikoak

### A AUKERA

#### 1. galdera (praktikoa): puntuazioa 0/4.

Europar Batasuneko estatu/herrialde bakoitzeko lokalizazio zuzena balioetsiko da.

#### 2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4.

Dauden mota guztiak desberdindu eta kokatu behar dira. Haietako bakoitzeko elementuak eta erregimenak eta bere faktoreak adierazi behar izango dira, bere lokalizazioaz eta bere izendapen zuzenez gain:

- Klima ozeanikoa: EAEko atlantiar isurialdean. Urteko 800 mm baino gehiagoko prezipitazioak, erregularrak. Temperatura leunak, oszilazio termiko baxua. Baso hostogalkorra, neurri batean birpopulaketengatik ordezkaturak.
- Trantsiziozko klima ozeanikoa: Arabako erdiko eskualdeak. Prezipitazioak urtean 600-900mm bitartekoak. Urteko batez besteko tenperaturak baxuagoa, neguak hotzagoak. Urteko oszilazio termikoa handiagoa. Pago-basoa, haritz-mota desberdinak eta pinu naturalak.
- Klima mediterraneo kontinentalizatua: Arabako Errioxan. Urteko prezipitazioak 600 mmtakoak baino gutxiagokoak; udan lehor-aldia. Urteko oszilazio termikoa handiagoa. Baso hostoiraunkorra.



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

---

### **3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.**

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

**Autonomia Erkidegoa:** mugako probintziek, uharteko lurraldeek edo eskualde-entitate historikoa duten probintziek osatzen dute. Legegintza autonomia eta autogobernu-gaitasuna dute beren eskumeneko gaitan.

**Biztanleria aktiboa:** Ondasunak eta zerbitzuen ekoizpenerako lan eskua ematen duten edo ekoizpen-prozesuari gehitzeko egoeran eta aukeran dauden pertsona multzoa.

**Deslokalizatzeko/Deskokatze industrialak:** eskualde edo herrialde berri batetara industria osoa edo jarduera-zati baten lekualdaketa bertan kostu txikiagoak (soldatetan, zergetan etb.) edo kualifikazio txikiagoko langileak direlarik.

**Garapen iraunkorra/jasangarria:** Etorkizuneko belaunaldiak beren beharrak ase ahal izatea arriskuan jarri gabe egungoko beharrak asetzen dituen garapena..



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

### B AUKERA

#### 1. galdera (praktikoa): puntuazioa 0/4.

Nekazaritza-paisaia bakoitzak aipatutako alde hauek balioetsiko dira:

- nekazaritza-egiturak: Biztanleria eta populatzea (sakabanatua edo pilatua), ustiategi mota (minifundista edo latifundista), lurzorua erabilera (nekazaritza, abeltzaintza eta baso-ustiapena) eta lehorreko/ureztatzeko bikoiztasuna
- laborantza motak eta abeltzaintza eta baso-ustiapen mota; espezieak bakoitzean.

#### 2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4.

Kontuan hartu beharreko aldeak:

- herrialde oso populatuak baina barne-desoreka handikoak.
- bi isurialdeen arteko diferentziak eta desorekak (itsasaldeko herrialdeak eta Araba).
- populazio-dentsitate handiko eremuak (hiriguneak eta industriguneak), eta dentsitate txikiko guneak (landa-eremuak).
- herrialdeen arteko diferentziak (Bizkaia: Bilbo Handian dentsitaterik handiena; Gipuzkoa: dentsitate handienak Donostia eskualdean; populazio-banaketa orekatuagoa; Araba: herrialdeko populazioaren parte handia hiriburuan dago).
- erliebearekiko banaketa eta jardura ekonomikoen kokapena.

#### 3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

**Landaredi potentziala:** era naturalean, giza esku-hartzerik gabe, tokiaren inguru-baldintzen arabera hazi beharko luken landaredia.

**Migrazio-saldoa:** leku batetako inmigrazioaren eta emigrazioaren arteko balantzea.

**Erliebe/Modelatu karstikoa:** haitz sedimentario edo metamorfikoen gainean modelatutako forma multzoa bere osagai mineraleen disoluzioaren ondorioz.

**Desertifikazioa:** giza jardueraren ondorioz basamortuen ezaugarriak lortzen dituen lurraldeko transformazio prozesua.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK  
PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD

## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

---

**Desertificación:** proceso de transformación de un territorio que, como consecuencia de la actividad humana, adquiere las características de los desiertos.

2016